


JARDUEREN EGITARAUA



2020

0 SARRERA

1 LAU HAIZETARA. ATEAK ZABALIK // MUSEO

2 ZABALKUNDEA

3 ARGITALPENAK

4 GRADU ETA GRADU-ONDOKO IKASKETETAKO
BEKADUNAK ETA PRAKTIKALDIKO IKASLEAK

5 *HERMES*, PENTSAMENDU ETA HISTORIA
ALDIZKARIA

6 GOGOETA ETA EZTABAIDA MINTZAGUNEA

7 EUSKARA

8 GAZTERIA

9 EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA

10 EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA

11 SABINO ARANA SARIEN EKITALDIA

12 BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK

13 KOMUNIKAZIOA / INFORMATIKA

14 JARDUEREN ONURADUNAK

Sabino Arana Fundazioa irabazi-asmorik gabeko kultura-erakundea da. Fundazioa 1988ko urriaren 11n sortu zenez geroztik, beraren zereginaren muina euskal historiaren ezagutza izan da: hura jagotea eta ezagutaraztea, betiere historia horri oraingo irakurketa egin dakion bilatuz, eta horrekin guztiarekin batera, ekarpen intelektuala egitea, Euskadik aurrera egiten segi dezan ikuspegi abertzale, demokratiko eta aurrerazale batetik

Atzokoan finkatuz, gaur biharkoa bultzatu. Horixe dugu Sabino Arana Fundazioaren leloa.

Horretarako, lau tresna nagusi baliatu ohi ditugu: Gogoeta eta eztabaida mintzagunea, Agiritegi historikoa, Abertzaletasunaren museoa eta *Hermes* pentsamendu eta historia aldizkaria.

Jakin dakigu gure iraganaren inguruko gogoeta eta, oro har, gure historiaren inguruko gogoeta, guztiz hausnarketa esanguratsua dela egungo testuingurua ulertzeko, inolako zalantza barik. Iraganari buruzko jakintza egokiak eta hausnarketa sakonak baliabideak ematen dizkigulako ikuspegi kritikoa landu dezagun etengabe aldatzen den eta, zer esanik ez, gu geu bizi gareneko gizarteak dakarzkigun arazo eta erronken aurrean.

Euskadiren historian, okerreko topiko zaharrak eta mito faltsuak ugari dira. Horrez gain, aintzat hartzen badugu hemengo biztanle gehienek iraganari buruzko ezagutza eskasa dutela, behar-beharrezkoa da Euskal Herriaren historia berreskuratu eta modu errazean zabaltzeko ahaleginak egitea. Horri esker, hobeto ezagutuko dugu denok mundu honen errealitate konplexua.

2020. urtean, Sabino Arana Fundazioak hainbat jarduera antolatu ditu azken mende erdi honetan Europaren eta Euskal Herriaren bilakaeran garrantzi handi izan duten gertakari jakingarri batzuen urteurrenak gogorarazteko.



Jose Antonio Agirre lehendakariaren heriotzaren 60. urteurrena

1960ko martxoaren 22an, bat-batean hil zen Parisen Jose Antonio Agirre lehendakaria. Artean, 56 urte zituen. Beraz, 2020an, 60 urte beteko dira zendu zenetik. Agirre lehendakaria euskal historia eta politika garaikideko erreferentzia garrantzitsuenetako bat dela sinetsita, Sabino Arana Fundazioak hainbat ekimenetan parte hartuko du, lehendakariaren, haren gobernuko kideen eta belaunaldi oso baten oroimenari gorazarre egiteko, gerra lazgarri baten eta erbestealdi luze eta gogor

baten ingurumarian, herrialde baten sugarrari eta haren zilegitasunari bizirik eusten jakin baitzuen.

EAJ-PNV alderdiaren 125. urteurrena

EAJ-PNVk alderdi politiko gisa sortu zeneko 125. urteurrena ospatuko du 2020an. Duela 125 urte, Sabino Aranak erein zuen haziak gaur egun ere fruitu mamitsuak ematen jarraitzen du. “Euskadi nazio bat da”, aldarrikatu zuen Sabino Aranak. Euskadi nazio bat da, aldarrikatzen du gaur egun euskal herritarren gehiengo handi batek. Anitza, plurala eta kohesionatua nahi dugun nazioa; nazio konprometitua, zuzena eta solidarioa; nazio garatu, berritzaile eta sortzailea; iparraldera begiratzen duen nazio irekia eta espiritu unibertsala duena; Europan ahots propioz izan eta egon nahi duen nazio bat; nazio aske, autogobernatu eta bakean bizi dena. Egunez egun guztion artean eraiki dugun eta eraikitzen jarraituko dugun nazioa. Horrelakoa da XXI. mendeko nazioa; halakoa da nahi dugun Euskadi.

Bigarren Mundu Gerraren amaieraren eta Pointe-de-Graveko guduaren 75. urteurrena

2020an, Bigarren Mundu Gerrako amaieraren eta Pointe-de-Graveko guduaren 75. urteurrena ospatuko dugu, azken horretan, Gernika batailoiak hartu baitzuen parte.

Pointe-de-Graveko borroka 1945eko apirilaren 14an hasi zen eta hilaren 20ra arte iraun zuen. Bigarren Mundu Gerrako azkenetako bat izan zen, eta bertan *Gernika* batailoiak parte hartu zuen, hots, euskal gudariak ez bestek osatutako unitate militar batek. Munduko gudua amaitu eta aste gutxira, Girondatik mendebaldera, Bordele eta Atlantikoaren artean hedatzen den Medoc penintsula askatzeko euskaldunek izandako esku-hartzea jo dezakegu Agirre lehendakariak aliatuei totalitarismoaren aurka laguntzeko hartutako konpromisoaren gailurtzat. Liskar hartan, bost gudari hil eta 23 zauritu ziren. Gure lurretik urrun borrokan ibilitako gudariak izan ziren, Euskadiren alde borrokan, faxismoaren aurka.

Álava sarearen erorketaren 80. urteurrena

«Álava sarea» izeneko euskal presoekiko elkartasun-sarea eta, Bigarren Mundu Gerran, Aliatuen aldeko espioitza-sare klandestinoak izan zen 1936ko Gerraren hasieratik 1940ra arte jardun zuena.

Frantzia okupatu ondoren, 1940ko ekainean, sarea erori zen Eusko Jaurlaritzak Parisen zuen ordezkartzearen Espainiako eta Alemaniako polizia bildutako informazioaren eraginez. Berrogeita hamar bat kide atxilotu zituzten 1940-1941eko neguan, eta horietako 21i epaiketa sumarisimoa egin zieten. Luis Álava izan zen bere zuzendaritzapean egindako ekintza antifrankista hura biziaren truk

ordaindu zuen errudun bakarra. Gainerakoetan, 19 kideri espetxe-zigor luzea ezarri zieten eta bakarra absolbitu.

Burgosko prozesuaren 50. urteurrena

2020ko abenduaren 3an, 50 urte beteko dira ETako hamasei militanteren aurkako epaiketaren (Burgosko prozesu ospetsua) ahozko ikustaldia hasi zenetik, ustez, hirurogeiko hamarkadaren amaieran egindako delituengatik. Horren ondorioz, mobilizazio ugari egin ziren, eta borroka antifrankistako hainbat gizarte-sektorek bat egin zuten mobilizazioekin.

COVID-19

Aste gutxi batzuetan, COVID-19ren ondorioek enpresa- eta lan-ereduak berregokitzera behartu gaituzte, biztanleria konfinatzearen ziozko eragozpenak ahal den neurrian arintzeko.

Ildo horretan, telelanak –era telematikoan lan egiteko aukerak– leku berezia hartu du. Izan ere, koronabirusa lan-arloan eragiten ari den aldaketa batzuek sendotu eta denboran iraun dezakete, batez ere, teknologia berrietan oinarrituz.

Enpresa eta erakunde askok –Sabino Arana Fundazioak, kasurako– aukera aparta aurkitu dute esparru honetan, mundu digitalean eta online plataformetan, aurrez aurreko jardueraren murrizketa ordezkatzeko, jarduera horri berriro heldu arte.

Horregatik, azken hilabeteotan (apiriletik aurrera), areagotu egin dugu SAFen baliabideak linean eskuratzeko aukera. Teknologia berrien erabilera eta askotariko eduki digitaletarako sarbidea areagotu eta sustatu dugu: artikulu historikoak, argazkiak, agiritegiko dokumentuak, biografiak, ikus-entzunezkoak eta SAFek linean dituen baliabideen abar luzea. Hori guztia, SAFen webgunearen, sare sozialen, YouTubeko kanalaren eta plataformen bidez. Bizi garen aroan gertatzen diren aldaketa bizkorrek eskatzen duten etengabeko hausnarketa ezagutarazi, partekatu, aztertu, ikusarazi eta gogoeta bultzatzeko asmoz.

LAU HAIZETARA. ATEAK ZABALIK // MUSEOA

32 urteko ibilbidean, lau ideiek laburbiltzen dute, hein handi batean, Sabino Arana Fundazioaren eginkizuna: bilketa, kontserbazioa, antolaketa eta hedapena-zabalkundea. Bestela esanda, Fundazioak egiten dituen jardueretatik sortutako dokumentu historikoak eta museoko materiala, lekukotzak, azterlanak, analisiak, hausnarketak eta abar biltzea; hori guztia kontserbatzea, antolatzea eta zabaltzea, hau da, gizarte **OSOAREN** eskuera jartzea.

Alabaina COVID-19 izurriteak sorrarazitako krisiak eta konfinamenduak eragotzi egiten dute aurrez aurre egiten ditugun jardueretako batzuk gauzatzea. Hori dela eta, Sabino Arana Fundazioan gordetzen den ondarea hedatu eta zabaltzeko lana egiten jarraitzeko, bi atal berri prestatu ditugu gure webgunean: **LAU HAIZETARA. ATEAK ZABALIK eta MUSEOA.**

Ekimen horien bidez, gure erabiltzaileengana hurreratu nahi dugu, modu birtualean, linean. Eta horretarako, teknologia berrien erabilera areagotu eta indartu behar da: Fundazioaren webgunea, sare sozialak, YouTubeko kanala eta gure plataforma guztiak, 32 urte hauetan metaturiko jakintza zabaltzeko eta partekatzeko.

Nolanahi ere den, COVID-19ren krisia gainditu ondoren, Sabino Arana Fundazioaren lehentasunetako bat izango da erabiltzaileekin komunikatzeko bide horren alde egiten segitzea.

ATEAK ZABALIK

Ateak zabalik izeneko atalean, Euskal Herriarekin eta bertako pertsona esanguratsuekin lotutako gertaera historikoen urteurrenak gogoratzen ditugu; agiritegiko dokumentu historikoak erakusten ditugu; argazkiak eta museoko funtsak; liburutegiko eta hemerrotekako aleak; gaur egungo gizarteari interesatzen zaizkion gai buruzko hitzaldiak partekatzen ditugu; ikus-entzunezkoak; Euskadiren historia modu batera edo bestera moldatu duten gai historiko eta antropologikoei buruzko prentsa-artikuluak; gure historialariek irratian egindako elkarrizketak...

Sail hori hiru ataletan egituratzen da:

- Euskal historiak: urteurrenak, biografiak, urteurren gogoangarriak eta pertsona esanguratsuak, erreportajeak...

Atal hori egunero elikatzen da, astelehenetik larunbatera, eta egun batzuetan bi albiste ere igoko dira. Beraz, urtean 300 albiste baino gehiago bilduko ditu, Sabino Arana Fundazioak koordinatu edo kudeatu duen gaiari buruzko argazkiak (mila inguru), PDF formatuko fitxategi eta/edo erreportajeen audioak erantsita.

- Argazkiak: albumak, agiritegiko dokumentuak, museoko aleak... 50.000 irudik baino gehiagok osatzen dute argazki-funtsa.
- Bideoak: euskal gizartea XXI. mendean. Atal horretan, historialariek eta hainbat arlotako (antropologia, kultura, ekonomia, soziologia...) adituek Euskal Herrian izan diren gertaera gogoangarri eta bertako pertsona esanguratsu batzuen berri emango digute astero. Hau da, gure kulturaren, nortasunean eta iraganean barrena ibiltzeko bidaia.

Beste alde batetik, Deia egunkariarekin lankidetzan, jorratzen den gaiari buruzko adituek idatzitako erreportaje historiko, kultural edo antropologikoa partekatzen dugu irakurleekin larunbatero.

MUSEOA

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoa paregabea da Euskadin, bertan gordetzen diren gai eta funtsengatik. Bertako bilduma XIX. mendetik gaur egunera arteko jatorrizko materialez osatuta dago, eta etengabe osatuz doa norbanakoen dohaintza ugariari esker. Azpimarratzekoa da museoaren funtsek duten balio historikoa eta, kasu askotan, sentimentala.

- Bildumak: ehun-funtsa, dekorazio-arteak eta arte grafikoak. Askotariko aleak, besteak beste, banderak eta ikurrinak, zapiak eta osagarriak, gure memoria historikoaren zati garrantzitsua gorde izan eta iraunarazten dutenak.
- Argazki-funtsa: ehunka mila irudi eta arte grafikoko euskarritan gorde dago gure iraganaren ikus-lekukotasuna eta historia ulertzen laguntzen digute.
- Erakusketak: historia eta kultura jorratzen dituzten aldi baterako ehun erakusketa baino gehiago antolatu ditugu.
- Tailer didaktikoak antolatu ohi ditugu, Euskal Herriaren historia modu errazean ezagutu eta horretan sakontzeko.
- Dohaintzak: ikurrinas, zapiak, gauzakiak, bestelako funtsak...
- Kotsultak.

 **Alberto Onaindiaren gutunak, 1936-1945**

Orain dela hamar urte inguru hasi zen garrantzi handiko lana da. Lanaren zeregin behinenak Vatikanoko (Erroma) agiritegietan eta Estatuko beste agiritegi batzuetan gordetako 4.000 bat agiri batu, eurak transkribatu eta horien gaineko oharrak egitea da. Lan horren xede nagusia dugu Agirre lehendakariaren laguntzaile Alberto Onaindia abadeak 1936 eta 1945 urteen artean idatzitako gutunak berreskuratzea eta abadeak gerra zibilean zein Bigarren Mundu Gerran egindako kudeaketa-lanen berri eskuratzea.

 **Jose Antonio Agirre lehendakariaren heriotzaren 60. urteurrenari buruzko ikerlana**

3

ZABALKUNDEA

3.1 | Artikuluak DEIA egunkariarentzat

Euskal historian eta antropologian oinarriturik, askotariko gaiak jorratzen dituzten artikuluak prestatu ditugu DEIA egunkariarentzat.

3.2 | Kolaborazioak irratietan

Era berean, kolaborazioak egingo ditugu hainbat irratitan, batik bat, Bizkaia Irratian eta Radio Popular de Bilbao/Herri Irratia, historiari eta memoria historikoari lotutako gaien zabalkundea egiteko asmoz, gai horiei buruzko ezagutza gizartean hedatzearren.

GRADU ETA GRADU-ONDOKO IKASKETETAKO BEKADUNAK ETA PRAKTIKALDIKO IKASLEAK

Gizarte-ikuspegiz den bezainbatean, gazteak prestatzeko konpromiso eta erantzukizunetik abiatuta, 2000. urtetik aurrera, Sabino Arana Fundazioak hainat unibertsitatetako gradu eta gradu-ondoko ikasleen praktikak zuzentzen eta gainbegiratzen ditu, hain zuzen ere, unibertsitate hauetakoak: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragón Unibertsitatea, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea, Madrilgi CEU San Pablo Unibertsitatea, Europako Ikasketen Proiektua, Connecticut College (USA), Guadalajarako Unibertsitatea (Mexiko), Nazioarteko Bikaintasun Kanpua, el Hezkuntza Esparrutik Lan Arlora Igarotzeko Beken Programa, Novia Salcedo Fundazioa. Praktika horiek agiritegian, museoan edo Fundazioaren Prentsa Bulegoan egiten dira.

Illo honi dagokionez, esan beharra dago Humanitateen arloko etorkizuneko ia ehun profesionalek (horietako batzuk dagoeneko lan-munduan ari dira) prestakuntza jasotzen jarraitu dute gure instalazioetan.

Jarduera hauen helburuak ondokoak dira: gazteek eta helduek pertsona- eta lanbide-garapenean aurrera egiteko dituzten beharriazanez erantzutea eta lan-eskarmentuaren gisako aukerak eskaintzea.

2020ko ekitaldian, Hermes aldizkariaren hiru zenbaki argitaratuko ditugu, hain zuzen ere, 64, 65 eta 66. zenbakiak.

 **64. zenbakia:** *Begiradak ETAre*n amaieraren aurretik eta ondotik

Zenbaki horretan, Juan Maria Uriarte Donostiako gotzain emerituak; Maixabel Lasa Eusko Jaurlaritzako Biktimen Arretarako Bulegoko zuzendari ohi eta Juan Mari Jauregiren alargunak; Carmen Torres idazle, kazetari eta Jose M^a Portellen alargunak; Joaquin Gimenez Auzitegi Goreneko magistratu ohiak; Edurne Portela idazleak; eta Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak gogoeta egingo dute “ETAren amaieraren aurreko eta ondoko” egoerari buruz. Begirada askotarikoak, irekiak, inklusiboak izango dira... gure iraganaren memoria kritikoa eraikitzen laguntzeko.

 **65. zenbakia:** *Immigrazioa eta euskera*

Euskara biziberritzeko prozesuak aurrera jarraitzen du gizartearen esparru guztietan, horietako bakoitzean, bateko edo besteko abiadan; beste alde batetik, jakina denez, beste herrialde batzuetatik etorritako milaka pertsona txertatu dira euskal gizartean azken urteotan eta horrek aldaketak eragin ditu hizkuntzen bizikidetzaren esparruan. Ingurumari horretan, euskararen ikuspegitik, jakin izan dugu etorkinak euskarara hurbiltzen? Eta etorkinen ikuspegitik, zertarako balio die euskarak gurera datozenean?

Galdera horiei eta hizkuntzen arteko bizikidetzari –batik bat, euskarari– eragiten dioten alderdiez gogoeta egin eta esperientziak partekatzeko argitaratuko dugu zenbaki hau.

 **66. Zenbakia:** *Euskal literatura eta memoria*

M^a Jose Olaziregik, euskal filologian doktore eta EHUko euskal literaturako irakasleak; Aingeru Epaltzak, idazle eta itzultzaileak; Ana Urkizak, idazle eta itzultzaileak; eta Patxi Zubizarreta idazleak memoria euskal literaturan nola islatzen den aztertuko dute zenbakian.

Mintegiak, hitzaldiak eta mahai-inguruak ditugu Sabino Arana Fundazioak darabiltzan baliabide nagusiak XXI. mendean bertan bizi ditugun errealitate anitzak ezagutzeko. Jardunaldi eta topaldi horietan, hainbat jakintza-arlotako pertsonak bai eta, sarritan, kontrako ideologiak dituztenek, mahairatzen dituzte iritziak eta ideiak erkatzen dituzte, kultura-truke sustatzeko asmoz. Horrela, elkarguneak sustatzen dira kultura, politika eta gizarte ikuspegi desberdinetatik.

Jardunaldi horietako gehienak irekiak dira jendearentzat eta, horregatik, orotariko eztabaida, anitza eta diziplinartekoa ahalbidetzen da eta eztabaidak elkarren artean elikatzen dira.

Mintzaguneetan hamaika gai jorratu ditugu: Europa eta immigrazioa, bake- eta adiskidetze-prozesuak, genero-indarkeria, emakumeak eta botere politikoa, ekonomia- eta finantza-krisialdia, gazteak eta teknologia berriak, *Brexit* delakoa (irtenbideak eta aukerak), Zigor Zuzenbidea ETArekin amaieraren aurrean... Gai horiek guztiak baliatu ditugu Sabino Arana Fundazioak bereizgarri duen aniztasunaren kultura biziberritu eta bultzatzeko.

32 urteko ibilbidean, 310 hizlari inguruk jardun dute gogoeta eta eztabaida mintzagunean eta 7.000tik gora parte-hartzaile izan dira gaurdaino antolatutako 210 mintegi eta 60 mahai-inguruetan.

Jarduera honen onuradun nagusiak fundazioak jorratzen dituen jakintza-arloetako adituak eta espezialistak dira; agintariak eta politika, ekonomia, eta gizarte esparruetako ordezkariak; iritzi-sortzaileak; irakasleak; profesionalak eta, oro har, gizartea.

MINTEGIAK

6.1 Memoria historiko eta Kulturari buruzko mintegia (IV)

Sabino Arana Fundazioak XX. mendean zehar sortutako euskal kultura-adierazpenen memoria aldarrikatzeko urtero antolatzen dituen jardunaldien esparruan, 2020an beste topaldi bat antolatuko du fundazioak.

6.2 “Gerraren hondakinetatik Europaren etorkizunera, Schuman adierazpenaren 70. urteurrenean” mintegia, PDE-EDPrekin lankidetzan

“Gerraren hondakinetatik Europaren etorkizunera, Schuman adierazpenaren 70. urteurrenean” izenburuaren ildotik, Europako Alderdi Demokratik (PDE-EDP) eta Sabino Arana Fundazioak mintegi bat prestatzen dihardute elkarlanean. Mintegia

irailaren amaieran egingo da, Fundazioaren egoitzan.

Mintegian, Europaren etorkizuna eta horren euskarri diren balioen multzoa aztertuko dira, azken hamarkadetan gure kontinentearen garapen politiko eta ekonomikoa baldintzatu duten bi mugarri historikoren urtemugak gogoratu: II. Mundu Gerraren amaieraren 75. urteurrena eta Schuman Adierazpenaren 70. urteurrena.

6.3 | XIII. Bilboko Elkarrizketak, IEDrekiko lankidetzan. Txile eta Mexiko

Europako Demokraten Institutuarekin (IED) elkarlanean, Bilboko Elkarrizketen 13. edizioa antolatuko dugu 2020an. Bertan, Latinoamerikako politikariek, europarrek eta nazioarteko adituek Europaren eta Latinoamerikaren arteko harremanei eragiten dieten gaurkotasuneko hainbat gai aztertuko dituzte, ondoz ondoko bi egunetan. Aurten, Txile eta Mexiko izango dira herrialde gonbidatuak.

6.4 | Emakumeen parte-hartzea eta ahalduntzea: berdintasuneranzko bidea

Frantziako Iraultzak 1789an aldarrikatutako berdintasun-printzipioa astiro-astiro hedatu da emakumeen bizitzan, nortasun propioa zuten norbanako autonomiaduntzat hartu beharrean, gizonaren arabera osotasuna eskuratzen zuten pertsonatzat hartzen baitziren, aita, neba, semea edo senarrari loturik beti. Hori dela eta, ezinbestekoa da emakumeek XIX. eta XX. mendeetan zehar urratu duten berdintasun-bide motela onbideratzen jarraitzea.

Hori dela eta, Sabino Arana Fundazioak ildo horretako mintegia antolatuko du.

6.5 | Garapenerako Lankidetzari buruzko jardunaldia

Sabino Arana Fundazioa 2013tik antolatzen dituen garapenerako lankidetzari buruzko jardunaldien esparruan, beste topaldi bat egingo du 2020ko ekitaldian. Jardunaldi horretan, garapenerako nazioarteko lankidetzan eskarmentua duten profesionalak, lankidetz-agentzia eta -erakundeetako arduradunek, katedradunek eta abarrek hartuko dute parte.

6.6 | “Nazio Batuen Erakundearen 75. urteurrena” mintegia, IEDrekin lankidetzan

Nazio Batuen Erakundeak 75 urte bete ditu munduan gorabehera handiak diren garai honetan, gainera, aurrekaririk ez daukan osasun-krisiak larriagotuta.

Ingurumari horretan, Europako Demokraten Institutuak eta Sabino Arana Fundazioak bat egin nahi izan dute Nazio Batuen Erakundeak egindako deiarekin, etorkizun hobea eraikitzeko nazioarteko lankidetzak duen eginkizunari buruzko “elkarrizketa” global batean parte hartuta.

HITZALDIAK ETA MAHAI-INGURUAK

6.7 | **Álava sarea. Álava sarearen erorketaren 80. urteurrena**

Gerra Zibilean eta diktadura frankistaren hasieran, 1936tik 1940ra, Luis Álavaren abizena zuen sareak hainbat elkartasun- eta laguntza-ekintza egin zituen presoen, erbesteratuen eta haien familien alde. Preso eta erbesteratuta zeuden buruzagien arteko posta-trukea ere ahalbidetu zuten kideek eta, gainera, espioitza-lanetan aritu ziren aliatuentzat Bigarren Mundu Gerran.

«Red Álava. Organización clandestina de solidaridad y espionaje 1936-1947» argitalpenaren egileek □ Josu Chueca historialaria, Karmele Perez Urraza, Begoña Bilbao Bilbao, Gurutze Ezkurdia Arteaga historialariak (EHU), Elixabete Perez Gaztelu eta Luzia Alberro Goikoetxea historialariak (Deustuko Unibertsitatea), Roman Berriozabal, Txema Montero eta Iñaki Goiogana □ hitzaldia emango dute.

6.8 | **Helduak: 4 hitzaldi**

Helduak elkarrekin elkarlanean, hitzaldi sorta bat antolatzen ari gara, gaur egun gure adinekoak gehien kezkatzen dituzten zenbait gairi buruz. Osasuna, pentsio sistema, segurtasuna, bakardadea edo Euskal Herriaren historia izango dira, besteak beste, hainbat arlotako adituek jorratuko dituzten gaietako batzuk.

6.9 | **Praktikaldiko bekadunak eta ikasleak: 2 hitzaldi**

Hitzaldi batzuk antolatuko ditugu bekadun eta praktiketako ikasleentzat, euren prestakuntza-premiei erantzuten dieten gaiei buruz, euren garapen pertsonal eta profesionalerako behar dituzten tresnak eskaintzeko eta lan-mundura hurbiltzeko asmoz.

6.10 | **Bizkaiko Aldundiaren auzo-eskolen 100. urteurrena**

1919ko Gallano mozioa dela bide, Bizkaiko Aldundiak sortutako auzo-eskolen sarea ekintza esanguratsu eta zeharo berezia izan zen. Ekimen hark analfabetismo-maila handia murriztu eta lurraldeko hezkuntza- eta kultura-desorekak zuzentzea izan zuen helburu, batez ere landa-eremuetan eta meatzaritza nahiz industria astunari lotutako auzoetan.

6.11 | **Burgosko prozesuaren 50. urteurrena**

70eko hamarkadaren hasieran, frankismoak agortze-zantzuak erakusten zituen, eta euskal militante batzuei heriotza-zigorra ezartzeko ahaleginari erantzun zioten diktadura garaian inoiz ikusi gabeko greba eta manifestazioen bidez. Burgosko prozesuari emandako erantzunak erregimena isolatu eta haren krisia bizkortu zuen.

Gertaerarik esanguratsuen haxe izan zen: Burgosko prozesuaren aurkako borrokaren inguruan, oposizio antifrankistak erantzun bateratua ematea lortu zuen askatasunen aldeko borrokan, biztanleriaren zati handi bat mobilizatu zuela, eta, diktadura atzera egitera behartu zuenez, kontzientzia eta konfiantza piztu zituen langileen sektore garrantzitsuetan, bereziki, gazteengan, eta orduan jabetu ziren faxismoa garaitzea bazegoela.

6.12 | Iparragirren 200. urteurrena: hitzaldia

Datorren abuztuaren 12an, 200 urte beteko dira Jose Maria Iparragirre, *Urretxuko Bardo*a, kantautore eta poeta jaio zela. Bizimodu buhamea eta abenturaz jositakoa izan zuen, eta irudi hori argiro islatu zen gitarra beti eskuan zuela eta bat-bateko kantu eta errimak egiten zituela. Bertsolari handia izan zen eta nortasun guztiz xarmagarria zuen. Gehienbat, euskaraz idatzi zuen (baina gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta italieraz ere idatzi zuen), eta Euskal Herriko gaur egungo abesti esanguratsu eta herrikoienetako batzuk paratu zituen. *Gernikako arbola* aipatzekoa da, bere ereserkirik ezagunena baita. Iparragirrenen beste abesti sonatu batzuk hauek dira: *Zugana Manuela*, *Agur Euskal Herria*, *Glu, glu, glu!*, *Kantari euskalduna*, *Nere amak baleki*, *Trapu zaharrak*, *Ume eder bat* edo *Ara nun diran dira*.

6.13 | ¡Berriro inoiz ez! Gerra irudiak 1936-1939

Hitzaldia, “Berriro inoiz ez! Gerrako irudiak, 1936-1939” erakusketaren esparruan, Mañarian.

6.14 | EAJ-PNV. 125 URTE

Hitzaldia/Mahai-ingurua. EAJ-PNVk alderdi politiko gisa sortu zeneko 125. urteurrena ospatuko du 2020an.

7 | EUSKARA

7.1 | Euskera1 mintegia

Euskaltzaindiarekin elkarlanean, EAEko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko erakunde publikoetako ordezkariekin eta berrogeita hamar bat eragile eta gizarte erakunderekin batera, euskarak datozen urteotan izango dituen erronkak aztertuko ditugu.

7.2 | Euskera2 mintegia

Euskararen biziberritzeak aurrera jarraitzen du gizarte esparru guztietan –horietako bakoitzean, abiada desberdina bada ere–. Bigarren topaldi honetan, euskara biziberritzeko bide berriak eta bilakaera aztertzen jarraituko dugu.

8.1 | Tailer didaktikoak eta ahozko historiari buruzkoak

Euskadiren historian, okerreko topiko zaharrak eta mito faltsuak ugari dira. Horrez gain, aintzat hartzen badugu hemengo biztanle gehienek iraganari buruzko ezagutza eskasa dutela, behar-beharrezkoa da Euskal Herriaren historia berreskuratu eta modu errazean zabaltzeko ahaleginak egitea. Horri esker, hobeto ezagutuko dugu denok mundu honen errealitate konplexua. Hala jarduera hauen guztien bitartez, Euskal Herriaren historia berreskuratu eta zabaldu, bizitza osoan zeharreko ikasketak sustatu, umezarotik zahartzarora, eta ikasleen grina piztea ikasketak Humanitateen eta Historiaren arloetan egin ditzaten.

Horretarako, aldi baterako erakusketak, tailerrak eta gradu, gradu-ondoko eta masterretako ikasleen praktiketako programa baliatzen ditugu.

Haur tailerrak

Gazteak gure gizartearen eta gure herriaren etorkizuna dira. Oinarri horietatik abiatuta, Sabino Arana Fundazioak eduki daukan helburu nagusietako bat gure neska-mutilak eta gazteak balioetan heztea da, etorkizunean gaitasun kritikoa garatzeko, elkartasunari eta giza eskubideei gogotik eusteko. Horretarako, 2003tik, Fundazioak hainbat tailer antolatzen ditu arte plastikoak, literatura eta beste jakintza-arlo batzuk eta oroimen historikoa, euskara edo euskal kultura uztarturik. Gaurdaino, ehun tailer baino gehiago antolatu ditugu. Irakasleek eta hezitzaileek ere parte hartzen dute jardueretan.

Haurrentzako tailerren helbururik behinena Historia era atsegin eta jostarian irakastea da, gure balioak eta gure kultura osatzen duten funtsezko balioei uko egin gabe eta, horretarako, tailer didaktiko eta jolas hezigarri ugari eskaintzen ditu fundazioak. Ildo horri jarraiki, tailerrek hainbat gaitasun garatu edo bultzatzeko balio dute: arreta, gogoratzeko gaitasuna... Horrela, gazteek gure iraganari buruzko zenbait alderdi ikasiko dituzte eta, aldi berean, egungo orainaldiari buruzko gogoeta egingo dute.

Jarduerak eta material didaktikoak (euskaraz zein gaztelaniaz) doan banatzen zaizkie tailerren programan parte hartzen duten ikastetxeetako ikasleei.

Horregatik, 2020ko ekitaldian programaturiko jardueretan, esan bezala, arte plastikoak eta literatura historia eta memoria historikoarekin, euskararekin eta euskal kulturarekin uztartuko ditugu tailerren eskaintzan.

Egungo molde didaktikoak erabiliz, aniztasunari eta eskolako ume-gazteen beharriaz errepenturik, kurrikulua aberasteko balioko dieten jardura jakingarri batzuetan aritu dira ikasleak.

8-16 urteko neska-mutilek parte hartu dute ondoko tailerretan:



“Artea, Zientzia eta Teknologia” tailerra

Argazki-kamera.



“Historia: Ezagutu eraldatzeko”

“Guernica” margolana berrinterpretatzen

Arboglifoak

Gabonetako arboglifoak



“Guernica” berrinterpretatzen



“Mende berriko eskola: Kulturaztasuna” tailerra

Taumatropoak

Gabonetako loteria

Hamma Bits

Gabonetako txartelak



“Etorkizuna eraikitzen. Izan garelako izango dira” tailerra

Bilbo eraikitzen

Gabonetako zorion-txartel animatua (PikaPika)



“Museoen eguna” tailerra

8.2 | Etorkizuneko lan-giltzarriak

Teknologia berriak gero eta hedatuago daude ikasgelan, gailuetan ez ezik, ikasketa-planean ere bai. Robotikak eta programazioak berezko lekua hartu dute Matematika eta Zientziari loturiko ikasgaien artean, baina non geratu dira Humanitateak? Azken hamarkadetan, jakintza izugarria ematen zaio jakintza teknikoari eta, alderantziz, gero eta balio gutxiago humanismoari atxikitako ikasgaiei: artea, filosofia, historia, literatura... Hala eta guztiz ere, humanitateak funtsezkoak dira inguruan dugun

gizartearen konplexutasuna ulertzeko tresnak eskaintze aldera, gazteei nahiz adinekoei.

Hori dela eta, programa honen bidez, hainbat tresna eskaini nahi dizkiegu Humanitateen arloko ikasleei norik bere ikasketen baitako espezializazioari buruzko alderdiak ezagut ditzan, laneratze-bidean. Hala, XXI. mendeen egiatan diren gizarte-beharrizanak aztertuko ditugu hainbat ikuspegitatik: ekonomia, demografia, politika, gizartea, kultura...

Hainbat topaldi prestatu ditugu hainbat jakintza-arlotako bi aditu eta gradu eta gradu-ondoko ikasleak elkartzeko.

DESKRIBATUTAKO JARDUEREN HELBURU NAGUSIAK

- Euskal Herriko gizarte-, politika-, ekonomia- eta kultura-alderdi garrantzitsuenak ezagutzera ematea, bereziki, gaurkotasuna duten auzi esanguratsuenak.
- Ezaupideak zabaldu eta partekatzea jakintza-arlo askotatik.
- Gaitasun kritikoa garatzea: egungo gizarteak gaitasun kritiko handia eta ingurunea zorrotz aztertzen duten pertsonak behar ditu. Giza garapenaren alderdi hori, gure ustez, funtsezkoa eta ezinbestekoa da gazteen prestakuntzan, helduaroan gizarte-erantzukizuna izan dezaten.
- Arian-arian azaltzen zaizkigun erronka eta aukera berriei irtenbidea ematea.

EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA ETA MUSEOA, FUNTSEZKO TRESNAK EUSKAL GIZARTEAREN GARAPENEAN

Sabino Arana Fundazioa 1988 urrian sortu zen irabazi-asmorik gabeko elkarte gisa. Sorrerako helburuetako bat Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia eratzea izan zen eta horretan egin zituen ahaleginak eta bi. Jakina denez, agiritegi historikoek herrialde jakin baten historia biltzen dituzten funtsak gorde, kudeatu, zabaldu eta herritarren eskueran jartzen dituzte. Gaur egun, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak dokumentazio historiko esanguratsua dauka hainbat funtsetan banatuta: Agiritegia, Liburutegia eta Hemeroteka. Agiritegiko funtsetan, aipatzekoak dira XIX. Eta XX, mendeetako fitxategi historikoak, erbestealdian ziren euskal ordezkarienak eta 1936ko gerran sorturiko funtsak, herrialdearen barruan nahiz kanpoan; era berean, alderdi edo elkarte politikoaren agiriak, kultura-elkarteen agiriak, enpresen agiriak eta norbanakoaren agiriak ere badaude.

Liburutegian eta Hemerotekan gordetako funtsak ondoko arloetakoak dira: Historia Garaikidea, Politika, Antropologia, Zuzenbidea eta Gizarte Zientziak. Guztira, berrogeita hamar funts baino gehiago gordetzen dira, 4.500 instalazio-unitate, 44.520 monografia eta serieko argitalpenen (egunkari eta aldizkariak) 7.350 titulu baino gehiago, hau da, 189.400 ale inguru. Milaka agiri eta gauzaki horiek sailkatu behar dira, deskribatu eta zein bere sailean ezarri. Horiez guztiez gain, Euskal Abertzaletasunaren Museoak dohaintza ugari jasotzen ditu. Nabarmen behar dugu fundazioak jasotzen dituen dohaintza guztiak, agiritegikoak nahiz museokoak, altruistak direla. Ez dago inolako kontraprestazio ekonomikorik. Sabino Arana Fundazioa dugu agiritegi eta museo historikoak sortu, kudeatu eta jagoten dituen bakarra. Bi baliabide horiek gizartearen zerbitzuko sortu ziren, gure ondare historikoaren eta kulturaren zabalkundea egiteko asmoz. Azken batean, eginkizun aparta betetzen dugu gure oroimen historikoa berreskuratzen.

Agiri, gauzaki, argazki eta bestelako guztiak ikertzaileen, norbanakoaren, hedabideen eta besteren esku daude. Eta bertan dauden funtsen erabilgarritasun eta garrantziaren erakusgarri, esan dezagun erruz kontsultatu direla. Agiritegiko dokumentazioa baliatu dute gudari, ertzain, preso eta iheslari askok pentsioa edo kalte-ordainak kobratzeko.

Izan ere, gure ahalbideen heinean, eskaera guztiei erantzun egiten diegu. Urte hauetan guztietan, dokumentazioari lotutako eguneroko zereginez gain (erregistroa eta deskribapena, gordetzeko eta zabalkundea egiteko) eginkizun atseginena dugu banako zein taldeko erabiltzaileei arreta egitea, ikertzaile profesionalak nahiz informazio jakinen baten bila gurera datozen norbanakoak izanik ere. Eta hori guztia egiten dugu inolako kontraprestazio ekonomikorik eskatu gabe.

Gure funtsak erabiltzeko, ez da baimen berezirik behar; gainera, esan dezakegu gure funtsak erabili dituzten ia guztiek oso gustura hartu dituztela eskainitako dokumentazioa, hartutako informazioa eta jasotako tratua.

Beste alde batetik, aipatu beharra dago hedabideek, herri-erakundeek eta bestelako antolakundeek askotan baliatzen dituztela gure funtsak liburuak irudiztatzeko, artikuluak hornitzeko, erakusketak antolatzeko... eta guztiz azpimarragarria da bertako dokumentazioa oinarrizkoa gertatu izana ikerlan eta argitalpen ugari bideratzeko.

Agiritegia eta museoa aintzat harturik, 7.723 kontsultari erantzun diegu eta ia mila ikertzaile etorri dira gure kontsulta-aretoa. Euskal ikertzaileak nagusi diren arren –Bizkaiko Lurralde Historikoan gaudela eta– katalanek, madrildarrek, frantsesek, alemanek, amerikarrek, japoniarrek eta bestek egin dituzte kontsultak gure agiritegian. Ikertzaileek gure agiri-funtsak erabili dituzte hainbat argitaletxetako ehun bat argitalpenetan. Beste alde batetik, gure fundazioak ia-ia 200 lan argitaratu ditu, monografiak eta ikus-entzunezkoak kontuan hartuta.

Bestetik, Museoak 210 erakusketa propio –iraunkorrek nahiz aldi baterakoak– baino gehiago antolatu ditu.

Museoko gauzakiak eta agiriak ehun erakusketetan baino gehiagotan egon dira ikusgai Euskadin, estatuan eta nazioartean: Madril, Londres...

Argazki-funtsak ere sarritan erabili dira Euskadiko, estatuko eta nazioarteko hedabideetan nahiz telebista ekoiztetxeetan.

Gaur egun, museoaren zeregin nagusiak ondokoak dira: argazki-funtsa katalogatzea, dekorazio-arten eta arte grafikoen funtsa berrantolatzea eta dohaintza berriak erregistratzea, inbentarioan jasotzea eta katalogatzea. Hala, milaka objekturen eta ehunka mila argazkiren zaintza kudeatzen du.

Gainera, nabarmendu behar dugu Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Euskadiko Agiritegi Historikoa 2013an zabaldu zela gure lankidetzari esker, eta herritar guztien esku jarri duela euskal administrazio publikoaren 1936tik aurrerako funts historikorik behinena. Sabino Arana Fundazioak dokumentazio ugari hori guztia zaindu, kudeatu eta ikertzaile nahiz norbanakoen esku jarri du 90eko hamarkadatik. Antzeko zerbait gertatu zen, hein txikiagoan –funtsen tamainagatik diogu, ez garrantzi historikoagatik–, 2002. urtean. Urte hartan, Kataluniako *Arxiu* Nazionalari eman genion ordura arte geuk gordetako eta zaindutako Kataluniako Generalitat-earen dokumentazio historikoa (Errepublika eta erbestealdia).

LIBURUTEGIA ETA HEMEROTEKA

Espezialitateak: Historia garaikidea, Politika, Antropologia, Zuzenbidea eta Gizarte Zientziak.

Funtsak (kopuruak):

Monografiak: 45.196

Egunkari eta aldizkariak: 7.342 titulu eta 189.415 ale

ZERBITZUAK (Agiritegia eta Museoa, 1992. urtetik)

Kontsultak: 7.723 (batez beste, 350 urtean)

Aretotik igarotako ikertzaileak: 771 (batez beste, 60-75 urtean)

A) OROKORRA

Ikerketak, erakusketak, hitzaldiak, artikulatuak, hitzaldiak, mintegiak... honako urteurren hauen guztien inguruan:

- 125. urteurrena: EAJ-PNV alderdiaren sorrera (uztailaren 31).
- 115. urteurrena: “Euzko Abendaren Ereserkia” euskaldunen ereserkia (apirilaren 29a).
- 110. urteurrena: Iruñeko Euskal Etxea (ekainaren 24a) eta “lehen euskal erromesaldia” Lourdesa.
- 100. urteurrena: lehen zinegotzi euskal abertzaleak Gasteizko udaletxean (otsailaren 9a).
- 100. urteurrena: Bizkaiko Foru Aldundiak sorturiko auzo-eskolak.
- 90. urteurrena: Eusko Abertzale Elkarte (Comuni3n) eta Euzko Alderdi Jeltzalearen berrelkarketa Bergaran (otsailaren 16a).
- 80. urteurrena: “Álava sarearen” erorketa (abendua).
- 75. urteurrena: II. Mundu Gerraren amaiera (apiriletik abuztura: Gernika batailoien ekintza, kontzentrazio-esparruen askapena, bonbardaketa atomikoak...)
- 70. urteurrena: Sabindiar Batzaren sorrera Baionan (irailaren 14a).
- 60. urteurrena: Eusko Jaurlaritzako lehen lehendakari Agirreren heriotza (martxoaren 20a).
- 50. urteurrena: Burgosko prozesua (abenduaren 3a).
- 50. urteurrena: Euskal Autonomia Erkidegoko estatutuaren indarraldia (urtarrilaren 11); Eusko Legebiltzarrerako lehen hauteskundeak (martxoaren 9a); Ekonomia-itunei buruzko akordioa (abenduaren 20a); Ertzaintzaren jarduera (abenduaren 23a).
- Gogora: Memoriaren Institutuarekin lankidetzan jarraitzea, gerra zibileko eta frankismoaren biktimak bilatzeko.
- Euskadiko umeen erbestealdia Sobietar Batasunean.

B) AGIRITEGIAN

- Erabiltzaileentzako arreta: kontsultak jasotzea (erregistroa eta erantzunak) eta ikertzaileei zerbitzua ematea, aretoan bertan nahiz urrutitik (informazioa, agiriak jasotzea eta ematea edo bidaltzea, kopiak egitea, kopiatu beharreko agiriak eskaneatzea, digitalizatutako irudiak PDF fitxategi babestuetan bidaltzea...).
- Dohaintzan jasotako agiri berriak hartzea eta instalatzea: Anasagasti, Gaintza eta abarren dohaintzak.
- Besteak beste, Francisco Abrisketak, Eduardo Estradek, Aita Mauro Elizondok eta José Antonio Aspuru dohaintzan emandakoak antolatzea.
- 70 urtetik gorako aldian, Salamancan konfiskatuta egon zen EAJren dokumentazio historikoaren birsailkatzea eta xehe-xehe deskribatzea.

- Ikus-entzunezkoak erregistratzea eta, hala badagokio, horiek soinu- eta irudi-euskarri hobe eta egokiagoetara aldatzea (agiritegi digitalaren mantentze-lana).
- Dokumentuen euskarria ekoiztetxe eta hedabideentzat gure historia, gertaera jakin edo pertsona ospetsuei buruzko lanak egiteko.

C) LIBURUTEGIAN

- Dohaintza eta/edo erosketa bidez, liburutegian txertatu direneko liburu berriak datutegian sartzeara. Aleei bizkar-etiketa jartzeara eta biltegian gordetzea.
- Norbanakoen dohaintzetatik eskuratutako aleak hautatzea. Gure liburutegian erabili eta edoniz kontsultatzeko modukoak ez direnak Gaintzara edo beste liburutegi edo/eta dokumentazio-zentro batzuetara bidaltzen dira eta nolabaiteko balioa dutenak (balio historikoa, politikoa edo sentimentala) Arteako urruneko biltegian gordetzen dira.

D) HEMEROTEKAN

- Dohaintza eta/edo erosketa bidez (harpidetzak), hemerotekan txertatu direneko titulu eta ale berrien erregistro-fitxa egitea. Kronologiaren arabera antolatzea eta biltegian jartzeara.
- Errepikatutako aleak garbitzea (Gaintza) eta zelanbaiteko balioa duten aleak Arteako urruneko liburutegira eramatea.
- “Hustuketa” izeneko datutegia (orokorra) elikatzea: gaur egungo egunkari eta aldizkarietan (*DEIA, Hermes, Historia Contemporánea...*) nahiz argitalpen historikoetan (*Euzkadi*) argitaratu diren euskal abertzaletasunaren edozein alderdiri buruzko artikulua erregistratzea.

E) ARGITALPENEN KONTROLA / ARTIKULUAK / ARGITALPENAK / HITZALDIAK / IKERKETA / ERAKUSKETAK

- DEIAan astero argitaratzeko artikuluen koordinazioa.
- Kolaborazioak hainbat hedabidetan (prentsa, irratia eta telebista) eduki historiko, urteurren eta abarren zabalkundea egiteko.
- Mahai-inguru, liburuen aurkezpen eta adituen jardunaldietan parte-hartzea.
- Hitzaldietan parte-hartzea.
- Sabino Arana Fundazioaren Museoak antolatzen dituen erakusketen euskarria.

HELBURUAK

2020ko ekitaldian, dekorazio-arten funtsa eta Jesus Maria Leizaola 'Lehendakari Zaharraren' Euskadiko itzulerari buruzko argazki-funtsa erregistratzen, inbentariatzen eta katalogatzen jarraitzea dugu helburu. Azken funtsa material grafikoz, objektu pertsonalez eta 25 argazki-bobinatan baino gehiagotan bildutako irudiz osatuta dago.

Material hori guztia interes historiko handikoa da, orain arte ezezaguna izan delako duela hilabete batzuk guregana iritsi eta, gehienbat, inoiz argitaratu gabeko materiala baita.

Irudi gehienak euskarri negatiboetan daude, eta, beraz, eskaneatu, digitalizatu eta positibo bihurtu behar ditugu. Behin euskarri horretan daudela, tratatu egingo ditugu, oraingo euskarria oso ahula delako eta galtzeko arriskua dugulako. Horregatik, premiazkoa da haiek katalogatzea eta digitalizatzea.

Funts hori katalogatzeko helburua hura zabaltzea da, historialariek, ikertzaileek, erakundeek eta, oro har, herritarrek ezagutzen ez duten materiala baitugu gure esku, eta funts horien gaineko ezagutza biziki garrantzitsua da garai historiko horri buruz gehiago jakiteko.

Era berean, nabarmendu nahi ditugu Museoan funts horren inguruan garatuko dugun alderdi didaktikoa eta ikastetxeetako curriculum-jardueretan izango dugun parte-hartzea; horrela, erraztasunak emango dizkiegu txikiei gure historiaz jabetzeko eta historian parte hartzeko. Era berean, dohaintzan jasotzen ditugun objektuak eta materialak katalogatuko ditugu eta, behar izanez gero, zaharberrituko ditugu.

Funtsei gagozkiela, 2019. urtearen amaieran, hainbat koadroz osaturiko dohaintza bat jaso dugu, eta horietako batzuen egungo egoerari buruzko txostenak egin ditugu, bai eta horien inguruko jarduketa-plana ere, margolanon hondatzea saihesteko. Lan hori UPV/EHUko Kontserbazio Masterreko praktiketako ikasleekin batera egiten da, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen aholkularitza jasotzen da, kontserbatzaileen eta masterreko irakasleen euren eskutik.

Prebentzio-zaintzako jarduerak garatzen jarraituko dugu, hau da, bildumen balizko narriadurak txikiagotzeko eta, etorkizunean, tratamendu korapilatsuagoak saihesteko beharrezko neurriak hartzen.

JARDUERAK

2020an, “Álava sarea, 1936-47. Emakume ikusezinak, elkartasuna eta espioitza” erakusketa jarriko da Mañarian maiatzean.

Gure museoko piezen lagapenak egingo ditugu, eta beste erakunde batzuetako erakusketetan ikusgai egongo dira, besteak beste, “Euskal Poliziaren Museoan”, “Bakearen Museoa Fundazioan”, Eusko Legebiltzarrean edo Jonquerako Udalak kudeatzen duen Museu de L’Exilin.

Aurten, gure eskaintza didaktikoa sendotu nahi dugu hainbat adin-tartetako hartzaileentzako tailer didaktikoen bidez, betiere historia ardatz hartuta.

“LEHENDAKARI ZAHARRAREN ITZULERA ETXERA” IZENEKO FUNTSA INBENTARIOAN JASOTZEA ETA KATALOGATZEA

Nagusiki, argazki-negatibo batzuk eta dekorazio-arten saileko zenbait material dituen funtsa da, baina argazkien bilduma oso oparoa da eta inoiz argitaratu gabeko irudi ugari ditu.

Irudiok erregistratzen, katalogatzen eta euretan gure moldea txertatzen jarraituko dugu. Deskribapen fisikoa, erregistratutako irudien kontraste-tratamendua eta argazkiaren inbentario zorrotza ere egingo ditugu, horien guztien uneko egoera kopia kopurua eta beste ezaugarri batzuk jasota.

Erregistratukoan, irudiak testu-fitxa egokian indexatuko ditugu.

Aleak hobeto jagoteko, funtsezkoa da euskarri egokietan instalatzea, tamaina, uneko egoera eta abarren arabera, argazki-albumetan, hainbat tamainatako pH neutroa duten gutun-azaletan sartuta, irudi bakoitzera egokituta.

Tailerrak eta erakusketak

Aurten, gure eskaintza didaktikoa zabaltzeko asmoa dugu eta, horretarako, adin-tarte guztietako hartzaileentzako tailerrak antolatuko ditugu, unibertsitateko kide eta adinekoentzat ere egokituta.

Helburua betetzeko, historia tailerrak antolatuko ditugu, bai eta euskal tradizioei buruzko tailer bat ere, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat, euskal idazle eta artisten eskutik. Dena dela, esandakoaren ildotik, beste tailer bat antolatuko helduentzat, antzeko emaileen eskutik; azkenik, belaunaldien arteko tailer pilotu bat antolatuko dugu, historia, tradizioak eta gure hizkuntza, euskara, lantzeko.

Bigarren zikloko eta Batxilergoko ikasleei ere eskainiko dizkiegu historiari buruzko tailerrak, gure eskaintza ikastetxeen ikasketa-eskarira moldaturik. Bestalde, argazkigintzaren printzipioak ezagutzeko tailerra, argazki-kamera bat egiteko tailerra eta irudiak errebelatzekoa ere eskainiko ditugu.

Aurten, berariazko tailer batzuk ere sortu ditugu:

- 1) Unibertsitateko ikasleentzat, izenburu honen ildoan: **“Materialen bizi-tza Museoaren barruan”**. Honako tailer hauek osatzen dute eskaintza:
 - Prebentziozko kontserbazioari buruzko hitzaldia, Begoña Aristegi Anduizaren eskutik.
 - Ehunen kontserbazioari buruzko hitzaldia, Soledad Santistebanen eskutik.
 - Paperaren kontserbazioari buruzko hitzaldia, Mercedes Brionesen eskutik (Bilboko Arte Ederren Museoko Kontserbazio eta Zaharberritze teknikaria).
 - Komisariotzari buruzko hitzaldia.
 - Obren tasazioari buruzko hitzaldia.

- 2) Helduei eta adinekoentzako hitzaldiak eta idazketa-tailerrak. Egile berriek euskal gaiei buruzko saioak emango dituzte eta, bertan, fikziozko pertsonaiak nola sortu zituzten, kontakizunaren garapena nola asmatu... azalduko dute.

Fundazioak ematen dituen sariak Sabino Aranaren jaiotegunaren oroitzapenez sortu ziren. Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkullu jauna buru izan duela, Sabino Arana Fundazioak Sabino Arana Sarien XXXI. edizioa egin zuen urtarrilaren 26an, Bilboko Arriaga antzokian.

Azken edizioko saridunez gain, beste 175 pertsonak, elkartek eta erakundek jaso dute saria azken 30 edizioetan, gizartearentzako zerbitzu eta gogozko lana egitegatik. Izan ere, elkarrizketa, ahalegina, elkartasuna eta beste balio batzuk izan dira nagusi Sabino Arana Fundazioak antolatzen duen urteroko hitzordu honetan.

BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK

- 2020ko ekitaldian, Aranzadi Zientzia Elkartearekin lankidetzan jardungo dugu “Oroimena berreskuratzeko asmoz hildakoak hobietatik aterata”. Era berean, Gerra Zibilean desagertutakoak, fusilatutakoak eta hobi komunetan lurperatutakoak aurkitzeko, hobietatik atera eta identifikatzeko helburuz, Aranzadi elkartearen garatzen ari den ikerlanen berri emango dugu.
- Martxoan, Euskadin dauden Galiziako Etxeen Irmandadea deritzon antolakundearekin elkarlanean, Alfonso R. Castelao idazle, marrazkigile eta nazionalismo galziarraren sortzaileari omenaldia egingo diogu. Ekitaldi horretan, lore-eskaintza egingo da Galiziako politikariari eskainitako monumentuaren aurrean, Europa parkean, Bilboko Txurdinaga auzoan.
- Beste erakunde, herrialdeko agintari eta Gerra Zibiletik bizirik atera ziren hainbat lagunekin batera, Gernikan, hiribilduko bonbardaketan izandako biktimen omenez egiten den lore-eskaintzan parte hartuko dugu apirilaren 26an.
- Ekainean, “Aterpe 1936” monumentuaren XI. urteurrenean parte hartuko dugu.
- Hainbat ikastetxerekin elkarlanean, hezkuntza-tailerrak eta erakusketak antolatuko ditugu, gure ume eta gazteek hobeto ezagut ditzaten gure historia eta bizi gareneko ingurunea.
- Beste ekitaldi batzuk.

- Mezu@: harpidedun berriak erakartzea argitalpena sendotzeko.
- Euskadiko historiari lotutako politika, kultura, kirol, gizarte eta beste arlo batzuetako gertakizunen urtemugak eta Sabino Arana Fundazioaren jarduerak zabaltzea hainbat sare sozialetan (Facebook, Twiter eta Instagram).
- Mezu@ berripaper elektronikoa bidaltzea harpidedunei urtero antolatzen ditugun jardueren berri emateko. Erabiltzaileen kopuruari eustea.
- Jarduerak zuzenean eskaintzea, *streaming* bidez; bestetik, bideoak gordetzea gure webgunetik ikusi ahal izateko.
- Sabino Arana Fundazioaren webgunean ostatatuta dagoen datutegia aldizka eguneratzea, gure agiri-funtsetara batzen ditugun liburu, aldizkari, egunkari eta euskal historiari buruz argitaratu diren artikuluei buruzko argibidez hornituta.
- Webguneak eguneratzea: Fundazioarena, Agirre lehendakaria, Sabin Etxea eta SAG150 (Sabino Arana).
- Artikuluak idaztea DEIA egunkariarentzat, euskal historiari eta antropologiari lotutako askotariko gaien inguruan.
- Historia ikertu eta zabaltzeko lan eta argitalpenetan parte-hartzea.
- Mahai-inguruetan, liburuen aurkezpenetan, jardunaldietan, hitzaldietan, hedabideetako saioetan eta abarretan parte-hartzea.

AZALDUTAKO JARDUEREN ONURADUNAK

- Hainbat jakintza- zientzia-arlotako adituak.
- Agintariak eta politika-, ekonomia- eta gizarte-esparruetako ordezkariak: politikariak, katedradunak, legelariak...
- Iritzi-sortzaileak eta hedabideak.
- Irakasleak, ikertzaileak, unibertsitateko profesionalak.
- Umeak, familiak, praktikaldiko ikasleak eta bekadunak, erretiratuak.

Gure deialdien izaera irekia dela eta, euskal gizarte osoa dugu gure jardueren onuradun. Ildo horretan, gure zabalkunde-plana Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan eta Euskal Herriko gainerako herrialdeetan hedatzen da.

Bide horretan, Sabino Arana Fundazioak gizarte-oinarri anitzaren aintzatespena eta babesa dauka, gizarte- nahiz politika-arloan.

Sabino Arana Fundazioaren helburu nagusietako bat emakumeen parte-hartzea bultzatzea eta genero-berdintasuna sustatzea da fundazioak antolatzen dituen jarduera guztietan. Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Legeari jarraiki, jarduerak garatzen dituenean, fundazioak beharrezko neurriak ahalbidetzen ditu berdintasun-printzipioa eraginkortasunez betetzeko eta printzipio hori funtsatzen duten balioak eta jardunbideak sustatzen ditu. Eta hori betetzeko ahaleginak egiten ditugu barruko erabaki-organoetan –Patronatua eta abar–, gonbidatuetan eta parte-hartzaileetan.

Beste alde batetik, esan beharra dago Sabino Arana Fundazioko kideok neurriak hartzen ditugula euskararen erabileraren garapena eta normalizazioa ziurtatzeko helburuz, alde batetik, gure herriaren kultur ondarearen funtsezko elementua delako eta, bestetik, gaztelaniarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde guztietako hizkuntza ofiziala delako.